



Guraso agurgarri horiek,

Gutun honen bidez seme-alaben hezkuntza prozesuan zein aisialdian guraso euskaldunoi lagungarri suertatu ahal zaizkizuen **tailer zein hitzaldi** batzuen berri eman nahi dizuet. Alde batetik, **umeeekin errezetak egiten jolasteko aukera** eskaini nahi dizuegu sukaldari euskaldun baten laguntzarekin. Bestetik, hitzaldi baten bitartez euskaraz jakin ez arren **seme alabei eskolako lanekin zelan lagundu** ikasiko dugu.

➤ SEME-ALABEKin ERREZETA DIBERTIGARRIAK SUKALDATZEKO TAILERRA

Errezeten bitartez seme-alaben hezkuntza prozesuan eragin dezakegu. Izan ere, sukaldaritza bitartez haurrek ahozketasuna, trebezia eta gaitasun komunikatiboak garatzen dituzte. Sukaldari profesional baten laguntzarekin zenbait errezeta egiten ikasiko dugu modurik entretenigarrienean. Tailerra euskaraz izango da.



Helburuak:

1. Seme-alabekin jolasteko errezeta berriak ikastea.
2. Errezeta dibertigarrien bitartez ludikotasuna eta osasuna uztartzea.
3. Euskararekiko motibazioa sustatzea.
4. Ondo pasatuz esperientzia positiboak bultzatzea.

UDALTEGIA	DATA	ORDUA
Begoñako udalategia (Circo Amateur Club Deportivo 2)	Urtarrilaren 19an (asteazkena)	18:00etan

➤ NOLA LAGUNDU GURE SEME-ALABEI ESKOLAKO LANekin?

Ikastaro honetan, euskaraz jakin ez arren, seme-alabei eskolako lanekin laguntzeko teknikak eta estrategiak ikasiko ditugu. Hezitzaileak ohiko galderei erantzunak ematen ahaleginduko dira. “Ez ditut bere etxerako lanak ulertzen eta berak ez daki azaltzen, zer egin dezaket?”. Iñaki Eizmendi hezitzaileak egoera desberdinei aurre egiteko aholkuak emango dizkigu adibide praktikoen bitartez. Hitzaldia gazteleraz izango da.

UDALTEGIA	DATA	ORDUA
Begoñako udalategia (Circo Amateur Club Deportivo 2)	Otsailaren 8an (asteartea)	18:00etan
Bilboko Tiboli eskola (Tiboli 5)	Otsailaren 10ean (osteguna)	18:00etan
Deustuko Bidarte udalategia (Lehendakari Agirre, 42)	Otsailaren 12an (larunbata)	11:00etan



Ana de Castro Rubalkaba
EUSKARA ZINEGOTZIA